22.ZK/MAIATZA 2022 • BILBOKO IKASTETXEEN ALDIZKARIA

ELGERA

CAROL VALDEZ DE LOS SANTOS ETA FRAILIN WILBER ROQUE

LA BASUREKIN HIZKETAN

3 Ikus-entzunezkoak
4 Elkarrizketa
6 Inkesta
7 Erasmus eta eTwinning proiektuak
8 Spainskills 2022
10 Irteera
12 Hauspoa proiektua
14 Komikia
16 Monografikoa
18 Erreportajea
20 Elkarrizketa
22 Eskolako ortua
24 Bitxikeriak
26 Bertsolaritza
27 IKT jolasak

aurkibidea

ELGERA

22. ZB MAIATZA

Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Botikazar BHI, Deustuko Ikastola IPI, Ellacuria-Zurbaran BHI, Elorrieta-Errekamari LHII, Eskurtze BHI, Gabriel Aresti BHI, Harrobia Ikastola LHII, Ibarrekolanda BHI, Ing. Jose Orbegozo HLHI, Kirikiño Ikastola IPI, La Salle Bilbao HLBIP, Rekaldeberri BHI, San Adrian BHI, San Inazio BHI, Txurdinaga LHII, Unamuno BHI, B01eko eta B02ko Hizkuntza Normalizazioko Ulibarri Programa eta PREST! aldizkaria.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 4.800. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

Antzerkia, istorioak bizitzeko lekua

Otsailean, La Salle Bilbao ikastetxeko Batxilergoko 2. urteko frantseseko ikasleok Campos Eliseos Antzokira joan ginen "Une amitié intouchable" ikustera. Joan aurretik, ikasgelan, ikusiko genuen antzezlanari buruzko zenbait jarduera egin genituen.

EGILEAK: Unai Gómez eta Ibon Quintanilla

Obra hau Boli Kostako, Korsikako eta Pariseko eskualdeko hiru aktore frankofonok prestatu dute eta antzokiz antzoki joan ohi dira hura antzezten. Izan ere, Olivier Nakachek eta Éric Toledanok 2011n zuzendutako "Intouchables" filmean oinarrituta dago.

Film honetan, Philipperen eta Drissen istorioa kontatzen da. Philippe parapente-istripu baten ondorioz tetraplegiko geratu zen aristokrata aberatsa da. Bere egoera fisiko eta gogo-aldarteak laguntzaile pertsonal bat kontratatzera behartzen du eta hautagai guztien artean Driss aukeratzen du gizonak, kartzelatik atera berri den auzo marjinal bateko etorkina. Eszenak aurrera joan ahala, hain ezberdinak diren bi mundu horiek pixkanaka-pixkanaka, adiskidetasun zentzugabe, dibertigarri eta sendo batean murgiltzen dira. Eguna eta gaua, elokuentzia eta iraina, etiketako jantziak eta txandala.

Antzezlan berezia da. Izan ere, ikus-entzuleekin harremanetan jartzeko aukera ematen du. Horretaz gain, obra bukatutakoan, galderak erantzuteko aukera luzatu ziguten aktoreek. Hori dela eta, euren bizitzari buruz eta ekitaldien munduari buruz oso baliagarriak diren hainbat gauza ikasi ahal izan ditugu. Azpimarratzekoa da, frantsesa ikasteko modu ezin hobea dela, antzokian sortzen den giroak ikasleok frantsesez hitz egitera animatu gintuelako. Gainera, ikasleok izugarri eskertzen dugu horrelako irteerak egitea, errutinatik ateratzeko modu bat baitira.



Guretzat ahantz ezin daitekeen esperientzia izan da, ekitaldia profesionala ez ezik, zirraragarria ere badelako.

“Uste dut ospeak jendea aldatzen duela, baina nik pertsona bera izaten jarraitu nahi dut”

EGILEAK: Carol Valdez de los Santos eta Frailin Wilber Roque

Emakumea, raperoa eta euskalduna: hori guztia da Elena. Hori eta askoz gehiago: profesionala, indartsua eta atsegina. Euskal Raparen mundura hurbildu gara emakume honen eskutik.

Ze musika mota entzuten zenuen gaztetan?

Ba, gurasoena: ama pop- talde baten superfan zen; aitak flamenkoa eta musika protesta kubatarra entzuten zituen (kubatarren semea da) eta neba nagusiak punka entzuten zuen. Oso punkarra zen eta saiatu zen ni punka egiten, baina, nik rapera jo nuen. Jendeak pentsatzen du bakarrik entzuten dudala rapa, eta ez da egia: gaur nik musika piloa eta ezberdinak entzuten ditut.

Nola konturatu zinen hip-hopa gustatzen zitzaizula?

Beti gustatu zait idaztea: gaztetan olerkiak eta kontutxoak idazten nituen, rapa zer zen jakin gabe. Barruan neuzkan gauza guztiak idatzi behar nituen: gero ez nizkion inori erakusten eta kajoietan geratzen ziren. Baina, batean, Burgoseko herrian grafitia egiten zuen tipo bat topatu nuen. Kasete bat utzi zidan, txarto grabatua, eta esan zidan, “hau rapa da”, eta konturatu nintzen bonbo-kutxetan sartzen banuen idazten nuena, rapa zela, eta hortik joan nintzen.

Zer gogoratzen duzu institutuko garaiaz?
Klasean ez nuen asko egiten, baina kantak idatzi…asko…kar kar…ikasle ona nintzen! Institutuan nengoenean, ez zegoen Internet: orduan kaseteak geneuzkan, txarto grabatuak, eta artistak nor ziren ere ez genekien. Baina, ordurako rapa gustatzen zitzaidan.

Kontzertuetara joaten zinen?
Bai, bai! Gaur ere nire bizitza hori da: ni lanean ez banago, beste artista baten kontzertu batean nago, museo batean edo kulturarekin zerikusia daukan nonbait.

Zergatik daukazu La Basu ezizena?
Betiko zalantza! Mundu guztiak pentsatzen du ezizena euskaratik datorrela, baina ez da egia. Duela hogeitabost urte banaiz Basu, baina garai hartan gazteleraz egiten nuen rapa. Denetarik entzun dut, "Basu de baxua, Basu de baxujole, Basu de basurde"… Benetako istorioa hauxe da: gaztetan rap kontzertu batera joan, eta zakarrontzi batera erori nintzen. Basu da "de basurera": polita ez da, baina benetakoa, bai.

Konfinamenduan, etxealdian, nola moldatu zara?
Mendian bizi naiz, baserri galdu batean. Orduan, ohituta nago bakarrik egotera eta gustatzen zait, nire bizitza zoratzekoa da eta lasaitasun puntu hori behar dut. Baina gogorra izan da, 85 egun bakarrik pasatu ditudalako. Hitz egiten nuen eta neure buruari erantzuten nion. Lanerako ez da ona izan: guztia kendu digute eta, azkena itzultzen, nola ez, kultura da.

Ze jende mota ezagutzen duzu musikamunduan?
Jende mota asko. Gure munduan erraza da elkar ezagutzea. Euskal Herrikook ia guztiok ezagutzen dugu elkar.

Famatutzat hartzen duzu zeure burua?
Ez, nik uste dut "famak" jendea aldatzen duela eta nik pertsona bera izaten jarraitu nahi dut: nire auzoan geratu naiz, betiko lagunekin. Egia da jende askok ezagutzen nauela, eta lotsa emateaz gain, ez da erosoa, amarekin joaten naizenean, adibidez. Nire bizitza nik aukeratu dut, baina amak ez, edo familiak, edo nire lagunekJendea etortzen denean, errespetuz baldin bada, ongi etorri guztiak, baina nire bizitza gauza bat da eta nire lana beste bat. Neure buruari galdetu diot milaka aldiz Elena eta Basu pertsona bera diren: Elena bizi ahal da Basu gabe, baina Basu Elena gabe, ez. Orduan, Elena izaten jarraitzen dut. Basu hor dago, eta nire lana da (eta oso Basu naiz, eh) Gazteon mobida hori, like-ena, bisualizazioena, jarraitzaileena …gorroto dut nahikotxo. Ez dakit zenbat jarraitzaile ditudan, ez dakit begiratu duzuen…

Bai, begiratu dut eta 10.600 dituzu.
Ba, horietatik 1000 bat ezagutzen ditut. Gauza bat esango dizuet: nire bizitzan lortu badut norbaitek klik bat egitea, eta raparen munduan emakumeen papera eta euskera zabaltzea horixe da, nire ustez, famatua izatea.

Zuk lagun batekin kantatzen duzu, ezta?
Jende askorekin kantatzen dut. Nire bizitzan bi korista izan ditut: orain Alaz daukat, eta lehen Ane izan nuen. Biak oso potenteak. Oholtza gainean partekatzea garrantzitsua da; nik rapa oso azkar eta gogor egiten dut, eta saltseoa gustatzen zait. Emakumeak bilatu ditut nirekin joateko: beharrezkoa dela uste dut, kostata, eh, neskek ez dute eta rapa egin nahi.

Zenbat disko kaleratu dituzu?
Lau diska eta hiru maketa

Elenak eta La Basuk, biek, emakume gehiago ikusi nahi dituzte oholtza gainean rap euskalduna egiten. Ea gure artean bere ereduak oihartzuna duen! Ez galdu duzun indar hori, La Basu, eta jarraitu Elena izaten!

Musukoa erabiltzeko debekua kendu ondoren, zergatik jarraitzen duzu musukoa janzten?

Egileak: Lara Trevilla Rodriguez, Santi Vélez Garcia, Marina Arce Piriz (DBH 3ko ikasleak)

Markel Perez Garcia

Ez dut musukoa erabiltzen, musukorik gabe libre sentitzen naizelako eta ondo arnastu ahal dut. Bestalde, pentsatzen dut musukoa erabiltzen duten pertsonek gehiago kutsatzen dutela, kalean edo bota behar ez duten tokietan botatzen dituztelako musukoak.

Marina Arce Piriz

Musukoa ez dut janzten medikuek esan dutelako "gripe bezalako bat pasatu behar dugula gure artean. Hau da, denok musukorik gabe egongo bagina guzti hau azkarrago amaituko litzateke. Baita, bi urte pasa dira eta pentsatzen dut egoera-normalizatu behar dela.

Naiara Olivas Velasquez

Nik maskara daramat Covid-a ez delako desagertu, eta horrekin babestuago sentitzen naizelako. Gainera, ohituta nago musukua erabiltzera, egunero egiten dudan gauza bat delako, errutina moduko bat. Bestalde, Covid-aren aurrean kutsatzeko aukera gutxiago izango dut.

Jon Arrizabalaga Armendariz

Inguruko norbait Covid-arekin kutsatzen bada eta nik musukoa erabiltzen badut ez nintzateke kutsatuko. Nire arrazoi nagusia hori da. Nire amonaren osasuna ere babestu nahi dut eta modu honetara kutsatzeko arriskua asko gutxitzen dut.

Santi Vélez Garcia

Musukoa janzten jarraitzen dut helduen osasuna zaintzeko.

Ainhoa Zurita Meneses

Ez dut musukoa erabiltzen ezin dudalako ondo arnastu. Asko agobiatzen naiz musukoarekin eta oso urduri jartzen naiz. Horrez gain, arnasteko zailtasunak sortzen dira egunero denbora asko egonez gero.

Erasmus: bizitzak aldatuz, pentsamenduak irekiz

Egileak: Julene Cuesta, Martín López eta Leandro Huizza

Azken bi ikasturteotan, Unamuno BHIko hizkuntza klasikoetako ikasleok Monsters In Danger of Extinction Erasmus proiektuan parte hartzeko aukera izan dugu. Erasmus programako proiektuen helburua Europako eskolen arteko elkarlana, ikaskuntza eta elkartruke -esperientziak sustatzea da. Bi ikasletxe ari gara proiektu honetan lanean: Unamuno BHI eta Greziako Ekpaideutiria Kotroni eskola, Nafpaktos herrian dagoena. Izan ere, gure bi eskolek eleaniztasuna, aniztasunarekiko errespetua eta inklusioa bultzatzeko lan egiten dute.

Mitologia klasikoko munstroak dira proiektuaren gaia (Minotauro, sirenak, harpiak, ziklopeak…), batez ere arteetan eta literaturan agertzen direnak. Horrek herrialde bakoitzeko partekatutako aberastasun kulturala aprobetxatzea ahalbidetzen du oinarrizko gaitasunak, generoberdintasuna eta giza-integrazioa garatzeko. Proiektuko jarduerak online eta aurrez aurrekoak dira.

Onlineko elkarlana eTwinning plataformaren bidez ari gara egiten, eta hauek dira egindako lanak: The Classical Bestiary, The Female Monster Museum eta The Van Helsing Guide. Proiektua 2020-2021 ikasturtean hasi zen eta lau aurrez aurreko mugikortasun ditu. Lehenengo ikasturtean, pandemia zela eta, ezin izan ginen mugitu eta egindako lan guztia online izan zen. Lehenengo bidaia 2021eko urrian gauzatu zen eta 12 ikasle greko Bilbora etorri ziren. Covid-a zela eta, hotel batean geratu ziren, baina hala ere, hainbat ekintza egin genituen elkarrekin. Hasteko, egun batean kayean ibili ginen Bilboko errekan, beste egun batean Donostiara joan ginen bisita egitera, baita Bilboko Guggenheim museoa bisitatu genuen eta beste hainbat leku ere. Mugikortasun programaren bigarren bidaia, Nafpaktos hirian izan zen abenduan, eta Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailako 12 ikasleok joan ginen. Oraingo honetan, aldiz, euren etxeetan geratu ginen eta esperientzia bikaina izan zen. Ingelesa asko hobetu genuen eta baita gure arteko erlazioa. Aldi berean zenbait leku bisitatu genituen, adibidez Atenas. Baita ardo bodega bat bai eta gatz museo bat ere. Hirugarren bidaia martxoan izango da, eta berriro Bilbora etorriko dira beste 12 ikasle greko. Ibis hotelean geratuko dira, Bilbon.

Ikasle hauek ere kayakean ibilko dira, Berreginen eta Guggenheim museoa bisitatu, baina, horrez gain, Iruña Veleia Erromako aztarnategia ikustera joango dira. Azkenik, laugarren bidaia Grezian izango da. Aldi honetan, DBH 4. mailako ikasleak joango dira, eta grekoen etxeetan ostatuko dira. Ekintza asko egingo dituzte eta baita Atenas bisitatuko dute. Erasmus proiektu honek gauza asko ikasteko balio izan digu. Alde batetik erabat independenteak izateko, etxetik urrun egoten jakiteko. Baita ingelesa eta grekera hobetzeko lagundu izan digu eta beste lekuetako kultura ezagutzeko ere. Gainera, eskolan, gustu askotariko jende jatorra ezagutu genuen. Greziar familiekin harremana ezin hobea izan zen zorionez, oso eroso sentitu ginen eta aldi berean haien eguneroko zeregin eta errutinei jarraitu genien. Beste alde batetik, oso interesgarria izan zen haien ohiturak ezagutzea eta aldi berean gureekin konparatzea. Hala ere, gure kabuz hiria ezagutzeko askatasun osoa genuen. Ikasle bezala, esperientza hoberen artean kokatzen dugu.

MIKEL MARTIN SPAINSKILLS 2022n

Artikulu hau aurreko alearen jarraipena da. Bertan esan bezala, Mikel Martin garaile atera zen EuskoSkills 2021eko Web garapeneko espezialitatean. Ondorioz, SpainSkills 2022n parte hartu du martxoan, Madrilen, Ifema erakustazokan.

Guztira, 25 espezialitate egon dira. Euskadiko selekzioak horietako 16tan parte hartu, eta 7 domina irabazi zituen. Euskadiko parte hartzaile guztiak elkarrekin egon dira, hotel berean, bost egunez, txapelketak iraun duen bitartean. Lehenengo egunean, aurkezpen-ekitaldia egon da parte-hartzaile zein epaimahai guztiei zuzendua, eta, bosgarrenean, dominen entrega. Beste hiru egunetan lehiaketa bera gauzatu da. Ekitaldia streaming-en bidez emititu zuten; bertan parte-hartzaileak trebatzen ikusi ahalko dituzue eta baita hainbat elkarrizketa ere. Youtube-n daude ikusgai bideoak; "SpainSkills 2022" bilatuta, erraz topatuko dituzue.

Kaixo, Mikel. Zurean zentratu baino lehen, zer iruditu zaizu SpainSkills: antolakuntza, espezialitate ikusgarriren bat…?

Spainskills-en oso ondo antolatuta egon da, lehen eguneko bazkaria izan ezik, ordu bat zain egon baikinen bazkaltzeko; baina, orokorrean, oso ondo. Nire espezialitatea, egia esan, ez da deigarriena izan, baina beste batzuk - hala nola lorezaintza, sukaldaritza eta ostalaritza-zerbitzuak- oso ikusgarriak dira.

Zure espezialitateari dagokionez, esango zenuke egin beharreko proben maila altuagoa izan dela EuskoSkillsen baino?

Spainskillseko proben maila, nire espezialitatean behintzat, Euskoskills-ekoena baino askoz altuagoa izan da, ezta konparazio punturik ere. Euskoskills-eko maila oso baxua da Spainkillsetan eskatzen den guztirako, nire ustez.

Zer nolako harremana izan duzu beste erkidegoetako lehiakideekin?

Lehen egunetik oso giro ona egon da, jende guztia oso jatorra izan da. Izan ere, Whatsapp talde bat sortu dugu harremanetan jarraitzeko eta egunero hitz egiten dugu.

Eta Euskal Selekzioko beste kideekin?

Euskadiko kideekiko harremana ez da izan nire espezialitateko parte-hartzaileekin izandakoaren bezainbestekoa. Oso giro ona egon da guztien artean, eta denok animatzen genuen elkar, baina, pertsonalki, askoz hobeto pasatu dut beste erkidegoetako parte hartzaileekin.

Esango zenuke merezi izan duela SpainSkillsen parte hartzea?

Spainskillsen parte hartzeak presio handia eragiten dizu, zure erkidegoa ordezkatzen baituzu bertan. Behin han zaudela, beste parte-hartzaile guztien aurrean, konturatzen zara zure onena eman behar duzula. Gainerako parte-hartzaileekin hitz egiten hasi nintzen arte, ez nintzen konturatu helburua ez zela irabaztea -irabaztea ere bai-, baizik eta batez ere nire sektore bereko jendea ezagutzea eta esperientzia on bat sortzea; dena ez da ikastea eta ikastea.

acer

Spainskills
Competiciones de FP 2022
Spainskills
Competiciones de FP 2022
Spainskills
CAR-O-LINER

ALTO CAMPORA IRTEERA

EGILEA: Oier Muñoz (San Inazio BHIko DBH 4.maila)

2 urtez txangorik egin gabe egon ondoren, 2022ko otsailaren 1ean San Inazio Institutuko ikasleok eski jarduera dibertigarri batez gozatu ahal izan genuen. 06:45ean geratu ginen autobusa hartzeko.Urduri nengoen, esperientzia berria zen elurrtean eskiatzea. Laster iritsi zen autobusa eta ikasleen arteko lasterketa hasi zen autobusaren tokirik onenak lortzeko ;atzea, non irakasleen ikusmena ez den iristen, lekurik onena omen da. 2 orduko bidaia izango zela esan ziguten, horregatik, aurrean jartzea erabaki nuen, zorabiatzeko joera baitut.

09:30ean iritsi ginen Alto Campoora, eta bidaian ikusitako paisaia guztiz zoragarria zen baina, zalantzarik gabe, dena txiki geratzen zen han zegoenarekin alderatuta. Berdin zen nora begira, leku guztietatik elurra ikusten zen, gainera, bazen elurra mugitzen zuen haize fina, hondarra balitz bezala, begietan sartzen zitzaizuna.

Motxilak hartu ondoren, irakasleei jarraitu genien, eskiak eta materiala alokatu genituen tokira eraman gintuzten; prestakuntza-tailerrarekin hasi ginen. Hasieran zaila izan zen, baina azkar ikasten da. 30 minutuko ikastaroaren ondoren, pista berdera igo ginen lehen jaitsiera egiteko, 10 metrotik behera gindoazen 10 metrotan. Hasieran, oso inpaktantea da eskiekin hartzen duzun abiadura, baina esan behar dut ez zela ezer pista urdinekin alderatuta.

Itxaronaldi luze baten ondoren, 11:00etan Oinarrizko Prestakuntza ikastaroa hasi genuen. Puntu honetan, esan behar dut, nahiko haserre sentitu nintzela monitoreek gurekin izan zuten tratuarekin, taldeak egiteko ez ziren ados jartzen ; horren ondorioz, leku batetik bestera joan behar izan genuen. Prestakuntza-tailerra amaitu ondoren, lagun batzuekin elkartu nintzen, eta pista berdea jaistera joan ginen. Onartu behar dut aldapan behera jaisteko erokeria puntu bat izan behar duzula, eskiatzen

ITXAROPEN MALUTA BAT

hartzen duzun abiadura eta ematen duen inpresioa ezagututa. Behin baino gehiagotan jaitsi ondoren, gosea piztu zitzaidan, eta lagun pare batekin hamaiketakoa egitera joan ginen. Fruitu lehorrak, gailetak eta txokolate beroa ekarri nituen. Eguraldia hotzagoa izango zela pentsatu nuen. Hori gertatzen da eskiatzen berotzen zarelako, gainera, goizean zegoen brisa kendu zen eta eguzkia atera zen. Arratsaldean, bazkaldu ondoren, pista urdina probatzeko gogoz sentitzen nintzen, eta lagun batzuek egin zutenez beraiei esan nien laguntzeko, ez bainuen bakarrik joan nahi. Pista horretara joateko, teleaulki bat hartu behar izan genuen.

Teleaulkitik bi aldapa handi ikus zitezkeen, hortik irten ondoren, itxaron nien nire lagunei iritsi arte, eta azkenean aurrera jo genuen. Eskien alokairua zegoen tokira iritsi berri, konturatu nintzen min hartu zuen nire lagun bat medikura eramaten zutela. Azkenean, bi lexionatu izan ziren. Bestalde, eskiak uzten hasi ginen, jasotzeko eta aldatzeko ordua baitzen. Lesionatuei dagokienez, geroago jakin genuen haietako batek bihurritu egin zuela eta lotailua hautsita zeukala. Beste lesionatuari dagokionez, inportantzia gabe zirudien kolpe bat, lotailu haustura bat izan zen.

Azkenik, Bilborako autobusean sartu ginen. Bidaiak uste baino gehiago iraun zuen, bidean geldialdi tekniko bat egin behar izan baikenuen, nahiz eta askori ez zitzaigun axola izan, gutako askok, hain nekatuta geundenez, bidean lo ere egin genuen. Azkenean, 19:30ean iritsi ginen Bilbora. Egun polita izan zen, eta oso ondo pasatu nuen; poz handia izan zen egokitu zaigun garai zail hauetan, impasse batez gozatu izana.

HAUSPOA

Hauspoa arratsaldeko orduak, klase ordutegitik kanpo, hainbat tailer berreskuratzeko edo ondo pasatzeko sortutako proiektua da.

EGILEAK: Maikel Danel Puri Álvarez eta Asier Izaguirre Alsasua

Konkretuki, Hauspoa Eusko Jaurlaritzako hezkuntza departamenduren proiektu bat da, non ikasleon harremanak eta gure gaitasun ezberdinak lantzen diren. Hauspoan hainbat tailer daude, eta urteetan zehar beste zenbait berri eta interesgarri agertzen dira. Baina, zertan datza proiektu handi hau? Nork antolatzen du? Zeintzuk dira proiektuaren onurak? Eta gure kasuan, zeintzuk dira arrakastatsuenak?

ZERTAN DATZA

Proiektu hau zenbait motatako eta gai ezberdinetako tailerrez osatuta dago. Tailer dibertsitate honi esker, ikasleok edozein gaitasun proba dezakegu, eta gainera, guk praktikatu edo landu nahi dugun tailerra aukera dezakegu, kurtso hasieran Gmail bitartez bidaltzen diguten inkestan. Aurtengo tailer hauek dira: sukaldaritza, eskalada, mekanografia ingelesez, frantsesa, xakea, eskulanak, scape rooma, voleibol, psikologia, jazz dantza… besteak beste. Batez ere, ikasleon datuak kontuan hartuz, tailer arrakastatsuenetakoak "Scape Room" eta sukaldaritza izan dira. Baina datu hauek guztiz aldatzen dira urtez urte; esaterako, 19/20 ikasturtean, "sukaldaritza" eta "xakea" izan ziren tailer arrakastatsuenak. Amaitzeko, ikasleok tailerrei buruzko proposamenak egin ahal ditugu hauetan apuntatzeko inkestetan. Horri esker, ikasleok gure gustuak jakinarazi ahal ditugu, eta gustukoen ditugun tailerrak landu ditzakegu.

COVID 19

Azken urteotan, COVID-aren agerpena oso garrantzitsua eta kaltegarria izan da gure bizitzan. Izan ere, birus honen agerpenaren ondorioz, kurtso hasieran proiektua gelditu egin zen. COVID-aren eraginez, aurtengo hauspoako tailerrak eten ziren eta arratsaldean klaseak edukitzearen zalantza agertu zen, baina zorionez, 2. ebaluazioaren hasieran berriz martxan jarri da proiektua eta honi esker, berriz, arratsaldeko orduak berreskuratu ditugu.

IRITZIAK

Proiektu honen antolatzailea Koldo da. Baina, nahiz eta berak Hauspoa orokorrean antolatu, institutuko irakasle bakoitzak bere jarduera antolatzen eta proposatzen du. Hori horrela izanik, irakasle batekin hitz egin dugu azaltzeko nola antolatzen duen bere Hauspoa eta bere ikuspegitik nola ikusten duen proiektu hau.

Irakasle honek Josu izena du. 3.A-ko klaseko tutorea da, Agenda 2030ko proiektuaz arduratzen da, eta 2 urte daramatza xake tailerra ematen:

"Nire ustez, Hauspoa arratsaldeetan lantzen diren tailerrak dira, ikasleen harreman eta gaitasunak lantzeko. Proiektu lagungarria iruditzen zait, Hauspoari esker maila ezberdinetako ikasleak elkartzen eta ezagutzen direlako, afizio bat dutenak amankomunean. Izan ere, Hauspoak balio du ikasleen gaitasun ezberdinak hobetzeko; esaterako, xakean kontzentrazioa eta pentsamendua lantzen dira. Hezkuntza ikuspegitik oso proiektu ona iruditzen zait, ikasleek ikasgaietatik kanpo beste aukera batzuk dauzkatelako, eta beste ikasleekin harreman onak izan ditzaketelako".

PROIEKTUAREN ONURAK

Proiektu eta tailer hauei esker, ikasleok gure gaitasunak eta gure arteko harremanak hobetu ahal ditugu.

Gainera, tailer hauek ikasleok aukeratzen ditugun jarduerak direnez, gusturago egiten ditugun ekintzak dira, eta honi esker hobeto edo erosoago lan egin dezakegu. Eta gure arloan jarduten duten beste ikasleekin harreman hobea izan dezakegu, edo lagun berriak egin ditzakegu, ondo pasatzen dugun bitartean.

Azkenik, Hauspoari esker jarduera berriak probatu ahal ditugu, edo behintzat haiek egiten ikasten ahalegindu. Eta, bestela, guk jadanik egiten dugun edo praktikatzen dugun ekintza edo jarduera bati buruz gehiago ikas dezakegu, eta arlo horretan gure gaitasuna hobetu.

NETIKETAK
ZIBERBIZIKIDETZA
Kaixo Aitor.
Kaixo Ane!!! Zelan?
Haserre nago zurekin...
Zergatik baina?
Atzo argazki bat argitaratu zenuen instagramen
Bai eta...
Ba...Argazki hori argitaratzeko baimenik ez zenuela eskatu...
Ez, baina ez dut ulertzen zure haserrea
Ba...argazki hori argitaratzeko baimena eskatu behar duzula
NETIKETen DEKALOGOA
Sentitzen dut txarto hartu izana. Errepasatuko ditut arauak!

DENBORAPASAK: BERBAXERKA eta WORDLE

Zenbaki honetako denborapasak atalera bi proposamen berri ekartzea erabaki dugu. Arrazoia honako hau da: aurten bi jolas berri zabaldu dira sareetan, biak ala biak ezin egokiagoak berbekin jolasteko: Berbaxerka eta Wordle. Goazen bada ikustera zertan datzan denborapasa berezi hauek.

Berbaxerka katalanen Paurologic jolasean dago oinarrituta. Gabonetan Marc Font informatikariak eta Gorka Salces irakasleak euskarara ekarri zuten eta harrezkeroztik guztion eskura daude sarean. Gure gomendioa www.berria.eus etik sartzea da duela gutxi akordioa lortu baitute sortzaileek eta euskarazko egunkariak.

Prozedura erraza da: egunero agertzen dira zazpi letra hexagonoetan –abaraska bat osatuz-.Horiek erabiliz eta erdikoa beti sartuz ahalik eta berba kopuru handiena lortzean datza erronka. Ez dago denbora mugarik eta justu ezaugarri hori ari da sortzen arazo gehien, bat baino gehiago jolasari kateatu geratu baita…

T	X	O	R	I
E	D	A	B	E
E	D	U	K	I

Wordle (EUS) jolasean, berriz, egunero asmatu beharrekoa berba bakarra da. Bost hizkidun berba bat idatziz hasten da jolasa. Letra eta posizioa asmatu badituzu berdez nabarmenduko da; letra zuzena bada baina posizioa ez, marroiz eta letra ez bada eguneko berban agertzen, grisez. Sei saiakera daude eta erronka hitza ahalik eta azkarren aurkitzean datza.

Jolasa mundo osoan dabil bolo-bolo eta gurera Talaios.coop-ekoek ekarri dute. Izan ere, jolasteko wordle.talaios.coop-era sartu behar da. Beraz, badakizu, batean zein bestean ondo-ondo pasa!!

LABORATEGIKO PRAKTIKA

Kimikako ikasleok, laborategian hainbat gauza egiten ditugu. Besteak beste, xaboia egin dugu, kristalizazioak, produktu desberdinek dituzten osagaiak aztertu ditugu, edo eta etxeko produktu desberdinen azidotasuna ezagutu dugu ere (ozpina, ardoa…).

Ikastetxeko laborategia ikerkuntzarako laborategi baten antzekoa da. Horregatik, laborategian ikasi behar dugun lehena segurtasun neurriak nola aplikatu eta erabili izanen da. Laborategiak bere protokoloak ditu: eskuak garbitu eta musukoa jantzi, segurtasun-betaurrekoak eta -eskularruak erabili, mantal txuria…. laborategian sartzeko gure gorputza babestu behar dugu eta. Eta behin laborategi barruan esan genezake bertan baliabide guztiak ditugula: ontziak, erloju beira, espatulak, neurri eta itxura desberdineko probetak, erregailuak, distilaziorako gailuak, dekantazio-inbutuak… Batzuk ezagunak dira, beste batzuk nola erabili jakiteko kurtso oso bat eman behar izan dugu klaseetara joaten. Eta gailu batzuk beste batzuk baino kuriosoagoak izanik, laborategiko praktika batzuk ere beste batzuk baino bereziagoak izan dira. Zementua aztertuko dugu praktika honetan! Gaur egun zementua eraikin gehienek behar dute, baina ikasi dugu ere bere jatorria erromatarren garaian dagoela, eta bere jatorrizko izena opus caementicium izan zela. Antza, gaur egungo zementua ez da guztiz berdina.

PRAKTIKA: ZENBAT BURDINA DAUKA ZEMENTUAK?

Beste elementu askoren artean zementuak burdina izan ohi du bere konposatuen artean eta praktika honetan, zementu lagin batek duen burdin kantitatea neurtzen da. Praktika gauzatzeko irakasleak prozeduraren mapa irudikatzen digu, eta guk pausuz pausu prozedura osoa exekutatu eta bidean emaitzen oharrak gordetzen ditugu. Praktika honetan mapak honen antza du:



Nabaria da oinarri teorikoak garrantzia handia duela prozedura ulertu ahal izateko, K2Cr2O7 0,1N potasio dikromatoa dela jakitea ez da makala eta! Praktika honek 3 fase ditu: zementua disolbatu, zementuak duen burdina eraldatu, eta azkenik burdin hori neurtu (horixe praktikaren emaitza). Zeintzuk dira, burutuko ditugun lanak? Batzuk arruntak, beste batzuetan kontu handiarekin ibili behar gara; bai gure burua zaintzeko, baita emaitzak idazteko ere. Adibidez, praktika honetarako disoluzioa azidoarekin nahastatzen dugunean, beharrezkoa da azido hau estrakzio kanpaiaren azpian gehitzea, lurruntzen diren gasak ez arnasteko. Edo burdina noiz dagoen guk behar dugun egoeran jakiteko, gure laginaren disoluzioak hartzen dituen kolore guztiak arretaz aztertu behar ditugu: burdinak guk nahi dugun oxidazio egoeran daukala jakiteko kolore zuria noiz agertu begiratu behar dugu.

Praktika honetan azken fasean kuriosidadea pizten zaigu. Lagina etengabe irabiatzen dugun bitartean, praktikan prestatutako disoluzioa tantaz tanta gehituko diogu eta horrela laginaren kolorea aldatzen joango da, uneka: gardena, berdea… eta kolore aldaketa behin betikoa izatean, more bihurtzen da!









Gehitutako disoluzioaren bolumen kantitatea erabiliz gure zementuak daukan burdin kantitatea jakin dezakegu ja. Eta esan bezala, laborategian egiten dugun oro idatzi egin behar dugu. Helburua, laborategian ondo moldatzeaz gain, datuen eta emaitzen islada baita. Pausu bakoitzean lortu ditugun emaitzak koadernoan idazten ditugu. Datu horiek guztiak aztertzea da praktika hauen helburua!

GURE AMONA ETA AITONAREN ONGIZATEA: ZAHARTZE AKTIBOA

Zer egin dezakegu gure adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko? Harrobia ikastolatik 8 urte baino gehiago daramatzagu hainbat proiektu garatzen TKNIKAren eskutik galdera honi erantzuteko. Tknikak, Euskadiko lanbide-heziketan berrikuntza sustatzen duen erakundeak, aukera eman digu aurten adinekoentzako gizarte-zentroetan animazio-zerbitzu senior bat ezartzeko. Proiektu horri aurre egiteko, lanbide heziketako hainbat ikastetxe elkarlanean aritu gara: Tolosa Inmakulada, Tolosaldea, Tartanga, Calasanz eta Harrobia.

Zer pentsatuko zenukete zuen irakasleek proposatuko balizuete adinekoentzako informazio-gune bat sortzea gure agureei azaltzeko zein jarduera dauden haientzat zuen udalerrietan? Ziur asko zalantza asko izango zenituzkete: non jarri informazio puntu hori, zer egin, zenbat jarduera dauden zuen udalerrian adinekoentzat, eta abar. Egia esan, gure ikasturtearen hasieran gure ikasleek antzeko zalantzak izan zituzten eta horiek argitzeko gure proiektuaren 1. faseari ekin genion Gabonetara arte. Gure proiektuaren 1. fasean, Osasun, Administrazio, Gizarteratze eta Egokitze Fisikoko zikloetako 1. mailako 100 ikaslek, bosnaka multzokatuta, gure amona eta aitonentzat informazio-puntu bat diseinatu zuten, adineko pertsonei aholkuak emateko, beraien egoera fisikoari, memoriari edo

gizarte-harremanei buruzko galderen bidez. Barakaldon eta Tolosan aholku horiek emateko zein jarduera zeuden ikertu ondoren, ikasleek katalogo bat sortu zuten, non jarduera horiek guztiak biltzen baitziren.

Urtarrilean, proiektuaren 2. faseari ekin genion, eta ikasleek Barakaldoko jubilatuentzako 4 gizarte-zentrotan diseinatutako informazio-gunea jarri zuten martxan. Tolosan, aldiz, Covidagatik bertan behera geratu zen esku-hartze praktikoa. Urtarrileko eta otsaileko asteazkenetan, 11:30etik 13:30era, adinekoek 30 minutuko hi-tzordua hartzeko aukera zuten Barakaldon gure 5 ikasleko talde batekin. Esperientzia hau oso aberasgarria izan zen bi arrazoirengatik: batetik ikasleek irakasleekin klasean ikasitakoa praktikan jarri zutelako

eta, bestetik, haien lanak pertsona nagusiengan zuen eragin onaz konturatu zirelako. Informazio gunera hurbildu ziren 75 egoiliarrek ikasleen lana eskertu zuten, adineko horietako asko bakarrik bizi zirelako eta ez zekitelako zein jarduera zeuden beraien udalerrian. Martxoan hasi genuen proiektuaren 3. fasea, Barakaldoko adineko 30 pertsonentzako 6 asteko programarekin. Programa horretan adinekoen osasun fisikoa, intelektuala eta emozionala hobetu nahi genuen, emaitzak erakutsiz. Horretarako, ikasleek ordubeteko zirkuitu bat diseinatu zuten, non ariketa fisikoak ez ezik, intelektualak eta emozionalak ere garatzen ziren. Esan behar dugu ariketa guztiak gure bezeroen beharretara egokitzen zirela eta 4 bezerok parte hartzen zutela aldi berean.Bideojokoak gustatzen zaizkizue? Adinekoei ere bai; horregatik, ikasleek diseinatutako zirkuituetako ariketen artean, 2 bideo-joko erabiltzen ditugu, Harrobiako 3Dko 2. zikloko 4 ikaslek sortuak: bat hanken indarra hobetzeko eta bestea oinez baina aurreratu gabe ibiltzeko. Gure bezeroek bideojoko hauek eroso erabili ahal izateko, Harrobiako Informatikako erdi mailako zikloko 1. mailako ikasleek euskarri andana egin ziguten 3Dko inprimagailuak erabiliz. Azkenik, Tartanga institututik haririk gabeko bi pultsadore sortu zituzten bideojoko horietarako. Imajinatzen al zenuten adineko pertsonentzako bideojoko bat sortzeko lanbide heziketako ziklo desberdinetako hainbeste ikaslek parte har zezaketenik?

Gainera, Oroi enpresaren betaurreko birtualak erabili genituen gure bezeroei esperientzia erakargarriak eskaintzeko, bertan baleude bezala, adibidez, Europako hiriburu bat ikusteko. Hemendik aurrera, gogoratu zuen aiton-amonei ere teknologia gustatzen zaiela, eta egin behar dugun gauza bakarra teknologia nola erabili azaltzea dela. Artikulu hau idazten ari garen unean (apirilaren 1ean) gure proiektuaren azken fasea prestatzen ari gara: gure adinekoentzako animazio-zerbitzuaren kaleko jarduerak (Gynkanak eta parke osasungarrietan egingo ditugun zirkuituak). Badirudi hazi garrantzitsu bat landatu dugula gure aitona eta amonen bizi-kalitatea hobetzeko, ezta? Eta zuek, zer egingo duzue?

Kaixo, gu Mikel Orbe, Aritz Briñas eta Asier Gimeno gara
til bat hobeto ezagutzeko. Zugatz Deustuko ikastolako ik
askoren ametsa da eta horregatik galdera bat

Zer etorri zitzaizun burura zure gurasoek Lezamara joan behar zinela esan zizutenean? Eta onartu zintuztenean?
Blokeatuta gelditu nintzen eta ez nuen sinesten, eta hartu nindutenean irrikaz saltoka hasi egin nintzen, eta egin nuen lehena aitite eta amonari deitzea izan zen. Hurrengo eguna, ikastola eguna zen eta nire lagunei gertatutakoa kontatu nienean oso pozik jarri ziren eta zoriondu ninduten. Gogoratzen dut nire lehenengo entrenamenduan oso urduri nengoela gogoratzen dut ez nuelako inor ezagutzen, baina gero ohitu nintzen.

Zelakoa izan zen zure lehen partidua bertan?
Ez dut oso ondo gogoratzen, baina gogoratzen dudan gauzarik bakarrenetakoa urduri nengoela gogoratzen dut. Azkenean presio handia da horrelako ekipo batean jolastea. Partidu bakoitza azkenengoa balitz bezala jokatzen dut, eta ekipo honetan nagoen denbora guztia aprobetxatzen saiatzen naiz.

eta gaur galdera batzuk prestatu ditugu Zugatz izeneko mu-
asle bat da, 14 urtekoa eta Athletic-en jolasten du, hau ume
tzuk prestatu ditugu Zugatz hobeto ezagutzeko.

Gogorrak egin zaizkizu bertako entrenamenduak edo proba fisikoak?
Hasieran pixkat bai, baina azkenean ohitu egiten zara. Egia esanda, urteak joan ahala proba fisiko gogorragoak jartzen dizkizute

Gustatuko litzaizuke hemendik urte batzuetara lehen taldean jolastea?
Bai, asko gustatuko litzaidake eta amets bat da. Futbolean jolasten duten ume eta pertsonen guztien ametsa gustuko duten futbol taldean jolastea da, eta oso polita izango litzateke etorkizun batean lehenengo taldean jolastea.

Zelan sentitzen zara Lezamara joaten zaren bakoitzean?
Oso harro sentitzen naiz, entrenamendu guztiak azkenengoak balira bezala aprobetxatzen ditut, ikasteko aukera bikaina delako. Badakit ume askok hemen egon nahi dutela, eta zorte handiko pertsona naizela badakit eta guztia ematen dut ahalik eta denbora gehien taldean mantentzeko.

Beste talde batek deituko balizu, onartuko zenuke?
Oraintxe bertan ez zait interesatzen, oso pozik nagoelako Athletic-en eta asko ikasten dudalako. Gainera, Athletic nire txikitako taldea da eta errespetu handia dut Athletic-engan, haren filosofiagatik munduan bakarra delako.

Zenbatetan izaten zara titularra?
3 atezain gara, beraz aste bakoitzeko atezain batek jolasten du eta horrek esan nahi du hiru astetik behin jolasten dudala, ez badaude.

Zenbat taldekide dituzu? Horietatik zeintzuk dira atezainak?
24 taldekide gara, **et**a haietatik 3 atezainak gara. Horretaz aparte, entrenatzailea, bigarren entrenatzailea, medikua eta psikologoa.

Presio handia da, horrelako talde handi baten kapitaina izatea?
Bai, presio handia da, baina ni ondo egiten dudala sentitzen dut eta oso pozik nago egiten dudanarekin. Urte asko dira eta behar den bezala hobetzen ari naizela sentitzen dut eta egunero erosoago sentitzen naiz nire buruarekin eta gorputzarekin.

Ortura denok gustura

Kaixo Elgeratarrok:
Oraingo honetan eskolan dugun ortuari buruz hainbat gauza kontatu nahi dizuegu. Egia esan gure baratzea, ez da oso handia, eta batzuetan, eguraldia dela eta, ezta oso emankorra baina guretzat politena da bertan momentu oso atseginak igarotzen ditugulako.

NON KOKATUKO DUGU GURE ORTUA?

Galdera horri erantzuna ematea asko kostatu zitzaigun, baina azkenean eskolako goiko patioa egokiena izango zela erabaki zen, ikastetxeko ikasle guztiak, txikiak baita, erreztasunez heltzen zirelako eta landareak ureztatzeko behar zen ura oso hurbil zegoelako.

ETA ORAIN ZER?

Behin tokiaren zalantzak konponduz gero, 6. mailakoek ortuko planoa egin zuten, eta denon artean baratzea apaintzeko lelo bat aukeratzeko txa-pelketa bat antolatu zen. Azkenean lelo irabazlea ”ortura danok gustura” izan zen. Bitartean irakasleek ortua aurrera eramateko behar zen material guztia, jardinerak, lur zakuak, tresnak, etb….erosi zituzten. Dena antolatuta zegoenean festa txiki bat egin genuen gure ortua inauguratzeko. Guraso batzuk etorri ziren eta primeran pasatu genuen.



ZER LANDATUKO DUGU?

Asko pentsatu eta gero hiru esparru bereiztea erabaki zen. Bat, sasoiko barazkiak landatzeko, bestea, gurpiletan belar usaintsuak kokatzeko eta lorontzietan lorak.

Oso polita izaten da landatutakoa biltzen denean. Batzutan, entsalada bat egin dugu eskolan jasotakoarekin.Eta beste batzuetan etxera eraman ditugu, patatak, urazak, ttipulak..

Iaz, beste esparru berri bat antolatu genuen, irakurketa txokoa. Eguraldi ederra dagoenean, oso atsegina da bertan etzanda irakurtzea. Anima zaitezte, eta ez baduzue, ortu bat ipini zuen eskolan!

BITXIKERIAK

Jirafek ez dute soinurik ateratzen

June Ibañez

Txakurrek zaunka egiten dute, katuek miau egiten dute, txoriek txio egiten dute eta jirafek… zer egiten dute jirafek? Austriako ikertzaile talde batek, zoologikoetan mila ordu baino gehiagoko soinu grabazioak azterturik, galdera honi erantzun ahal izan zion eta erantzuna hauxe da: ezer ez. Jirafak ahots-kordarik gabeko planetako ugaztun bakarrak dira eta, beraz, mutuak direnez, nola komunikatzen dira?

Nahiz eta ahots kordarik ez izan, elkarren artean gizakien belarriek hauteman ezin dituzten soinuen bidez komunikatzen dira. Jirafek ikusizko eta usaimen-estimulu eta soinu berezi horien bidez komunikatu behar dute. Horrez gain, bikotekideak gorteatzeko, jirafek abesti moduko bat kaleratzen dute, giza eztularen antzekoa.

Bada arriskutsua somnanbulu bat esnatzea?

Erika Martinez

Guztiok noizbait somnanbulu batekin topo egin dugu eta hura esnatzeko beldur izan dugu, izan ere, lo-ibiltariak iratzartzea bihotzekoak eragin diezaiekeela entzun egin dugu. Hala ere, hori egia al da? Ezeri ekin baino lehen, haiei buruzko zenbait mito ezeztatzeko beharra dago. Ez pentsa zombie moduan aritzen direnik, hain zuzen ere, nahiz eta begirada galdua izan, besoak luzatu gabe ibiltzen dira. Era berean, zuetako batzuek uste duzuena errefusatzen, ibiltzen ari diren bitartean min har dezakete; beraz, seguruenik leku ezezagun batean badaude, behaztopa egingo dute. Orduan, somnanbulu batekin aurkituz gero, zer egin behar da? Lehenik eta behin, lokartuta egongo denez, segur aski ez du besteen presentzia antzemango. Bigarrenik, hura esnatzen saiatuz gero, orientazioa galduko du eta horren ondorioz, larritzeko arriskua dago. Guztiok ezagutzen dugu iratzargailuaren alarma jotzean amets sakona eteteak eragiten duen nahasmena, ezta? Ba, esan dezakegu hark horrelako zirrara nabarituko duela. Baina, inondik inora ez dio bihotzekoak emango. Horregatik guztiagatik, somnanbuluak esnatzea arriskutsua ez den arren, adituek hobesten dute hura esnatzea ekiditea eta arduraz ohera eramatea. Modu horretan, sakonki lokartuta jarraituko du, eta, goizean gertatutakoaren gainean ez du ezer gogoratuko.

Udaberriko atarian

Saioa Oliden

Udaberria hasi berria, Aste Santua ere badator bere prozesioekin. Baina… ez pentsa erlijioaren kontuekin natorkizuenik! Neguaren osteko garai zoragarri honetan, beste mota bateko prozesioak ditugu nonahi, naturak ekarritakoak, hain zuzen, eta ez gizakion sinesmenak. Maskotarik edota umerik baduzu, adi mendian edo parkean! Prozesionaria dugu, pinu-beldarra, taumetopeldoen edo notodontidoen familiako tximeleta baten beldar iletsua (Thaumetopœa pityocampa). Tximeleta-amak udan erruten ditu arrautzak, 200 inguru. Eta hurrengo udaberrian irteten dira. Pinu adarretan egiten dute habia, zetaren antzeko hariak eginez. Seguruenik pinuetan poltsa zuriak ikusi dituzue, ezta? Bada, poltsa horietatik irten eta kate luzeak osatzen dituzte prozesioan —hortik datorkie izena—, bata bestearen atzetik, ia-ia itsatsita. Kate luze horiek urrezko lepoko amaigabea dirudite, lurperatzeko asmotan krisalida bihurtzearren dabiltza, gero berriro tximeleta izateko. Lepoko politak osatu arren, oso arriskutsuak dira. Haien ileak pozoitsuak dira, eta txakurrek ikutuz edo zurrupatuz gero, nekrosatu ahal zaie mingaina, hanka, edo ikutzen duten atala. Badira ere hiltzen diren txakurrak pinu-beldarra zurrupatuta, eta hainbatek ere urtikaria eragin dute pertsonengan. Hortaz, disfrutatu parkea, disfrutatu mendia zure umeekin edo txakurrarekin. Dena dela, erne ibili. Edertasunaren atzean arriskua egon daiteke eta!

Zein da materialik erresistenteena?

Ainara Alonso

Munduko materialik sendoena armiarma-sarea da; izan ere, altzairua baino pixka bat erresistenteagoa da sare hau, 4 bider masa gutxiagoarekin pisu berdina jasan dezakeelako. Hari hori haien jatorrizko luzeraren hogei aldiz handitu daitezke apurtu gabe. Gizakiok oraindik ezin izan dugu hari hauen erresistentzia gainditu inolako prozesu artifizialarekin; hortaz, armiarmengandik ikasi beharko dugu.

Folioa eta ilargia

Irantzu Ibargarai

Zer gertatuko litzateke folio bat 30 aldiz moztuko bagenu? Zer altuera hartuko luke? Agian zentimetro gutxi batzuetan pentsatzen ari zara, baina ilargira iritsi gaitezkeela esaten badizut, zer deritzozu? Batez besteko folio batek 0,21 mm-ko lodiera du eta, beraz, milimetro bat izateko 5 folio beharko genituzke. Lurraren eta ilargiaren arteko distantzia 384.000 km-koa da; hau da, 384 000 000 mm. Balio hori 5 aldiz biderkatuz, mm bat izateko behar den folio kopurua, gure sateliteraino iristeko behar den folio kopurua lortzen dugu: 1 920 000 000. Baina, folio kopuru hori hartu beharrean, bakarra hartu eta 30 aldiz erditik mozteko gai izango bagina ilargira helduko ginateke; lehenengo mozketan, 0,42mm izango genituzke, bigarrenean, 0,84, hirugarrenean, 1,5 eta horrela ilargilainoko distantzia izan arte. Liluragarria, ezta?

Garia eta xakea

Irantzu Ibargarai

Kondairak dioenez, indiar batek xakea sortu eta erregeari aurkeztu zionean, erregea hain txundituta geratu zen, non galdetu baitzion nola saritu behar zuen. Sortzaileak gari ale 1 eskatu zion lehen karratuaren truke, 2 hurrengoaren truke, 4 hurrengoaren truke, 8 hurrengoaren truke, eta horrela hurrenez hurren 64 karratuak izan arte; ziur aski sari hori oso txikia dela pentsatzen ariko zara, baina erregea ez zen fidatu eta bere matematikariekin hitz egitera joan zen, gari kopuru hori ezin zutela lortu esan ziotenak. Izan ere, egia esan, ez dago eskaera hori estaltzeko adina gari, soilik azken laukiagatik eskatzen ari zarelako 922 337 203 700 000 gari ale; lehen laukian 20 eskatzen ditu, bigarrenean 21, hirugarrenean 22 eta azkenekoan 263. Badirudi indiarrak oso ondo zekiela zer nahi zuen.

Gure gorputzeko kirolaririk onena

Ainara Alonso

Zenbait organok lan egiten dute uneoro: hankak ibiltzeko ezinbestekoak dira, urdailak etengabe egiten du digestioa, mingainak milioika mugimendu egiten ditu egunero… Alabaina, gure gorputzeko kirolaririk onenak begiak dira zalantzarik gabe: egun batean 100.000 aldiz mugitzen dira! Kasurako, hankekin jarduera berdina egiteko egunero 80 km ibili beharko zenituzke

Isaac Newton Appleren lehen logotipoan zegoen

June Ibañez

Hozkatutako sagarrak hasieratik Appleren irudia zirela uste bazenuen, oker zaude. Isaac Newton izan zen Apple markaren lehen logoaren irudia. Zientzialari ingelesak sagar bat erori eta grabitatearen teoria formulatzen duen eszena famatu hura. Logo honen bizitza laburra izan zen, urtebete baino ez zen egon. Geroago, irudi koloretsu bat hozkatutako sagar batekin aurkeztu zuten. Logotipo hau 1976tik 1998ra arte egon zen. Ondoren, tonu urdinetatik igaro da, erabateko beltz batetik, zilar iradokitzaile batetik gaur egungo kolore zuriraino. Appleren logotipoa historiara pasako da enpresa batek hartu ahal izan duen sinpleenetako bat bezala.

Zergatik dute zuloa donutek?

Ane Maï Vendeville

Donuta Estatu Batuetako opil ofiziala dela esan daiteke, baina gaur egun ia mundu osoan aurki dezakegu. Funtsean, denok dakigu zer den donuta: erroskilla bat, opil biribil bigun eta samur bat, erdian zulo bat duena. Baina, zer dela eta dauka zulo bitxi hori? Seguruenik, gehienok pentsatzen dugula itxura aldatzeko ezaugarri bat baino ez dela. Horren azalpena, ordea, opilaren egosketarekin zerikusia dauka. Donuta, hasieran, opil biribil bat zen, baina egia esanda, perfektua ez zen. Bere osagaiak zirela eta, orearen erdialdea ondo egosi gabe geratzen zen.Arazoari Hanson Gregory marinelak eman zion konponbidea, 1847an. Piperrontzi baten tapa hartu eta masaren erdian zulo bat egin zuen. Eta kito arazoa! Hala sortu zen donuta egun ezagutzen dugun moduan.

DBH 4A
GAIA: NERABEZAROA
DOINUA: IKUSI NUENEAN

Ikusi nuenean
nire aldartea
gustatuko zitzaidan
polita_izatea
baina garauak ere
irteten direnez
garaia pasa arte
ez daukagu errez
oraintxe bertan berriz
korrika etxera
aurpegia garauez
paella antzera

DBH 4B
GAIA: OPORRAK
DOINUA: FURRA-FURRA

Furra furra fandangua
bagoaz oporretara
ikusten mundua
laster datoz oporrak
denok Artxandara
oso berandu jaiki
alfer hutsak gara
mugikorrari begira
gaur_egun osoa
telebista ikusten
eguerdi gozoa

DBH 4C
GAIA: IÑAUTERIAK
DOINUA: AI ZAPOTXIN

Ai Zapotxin
ez dago zer egin
gure klaseko mozorro hauekin
Batman-en mozorroa
zuri eta beltza
horrela konpontzeko
'Villano'en saltsa
Kailluz mozorrotuta
barreak klasean
guztiak burusoilak
Unairen aurrean
Ai zapotxin...

DBH 4AC-DC
GAIA: PANDEMIA
DOINUA: AMA BEGIRA ZAZU

Hondartzara joateko
garaia heldu da
covid- dago eta
galduko dut uda
beti gaude ematen
jela eskuetan
pegatuta daukagu
denak azaletan
etxean geratzeko
ez daukat asmorik
baina honekin nago
guztiz asperturik

SAN ADRIAN BHI INSTITUTUKO IKASLEEN BIDEOAK IKUSTEKO ESKANEATU ONDOKO QR KODEA!

IKT JOLASAK: BILBO KLIK BATERA

Kaixo! Gu Kirikiño Ikastolako DBH1eko Hedabide Tailerreko ikasleak gara eta Bilboko hiriari buruzko jolas batzuk egin ditugu: hitzen erruleta bat, asmakizun batzuk, Bilboko lekuen argazkien joko bat eta Bilboko pertsona famatuen izenen gurutzegrama. Espero dugu Bilbori buruz zerbait gehiago ikastea eta ondo pasatzea!

Asmakizunak

Gaia Bilbo izanik, sortu ditugun asmakizunei erantzuna eman beharko diezue. Laguntzeko aukera desberdinak aurkituko dituzue.

Pertsona famatuen gurutzegrama

Bilboko pertsona famatuen izen-abizenak asmatu beharko dituzue.

BIKOTE-MIKOTE

Bilboko lekuen argazkiak eta izenak lotu beharko dituzue.

HITZEN ERRULETA

Letra bakoitzeko galdera bat topatuko duzu: leku, pertsona famatu, historia...

Bilbo Zaharra EUSKALTEGIA

15. irakurketa jarraitua

ekainak 8 **ARRIAGA**

15 URTE
IRAKURTZEN

MARTUTENE

2012
2022

Ramon Saizarbitoria

ANTOLAPZAILEA
Bilbo Zaharra EUSKALTEGIA
BABESLEAK
Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO
LABORAL kutxa
Bizkaia foru aldundia diputación foral